



**The Uski's** taldeak (Elantxobe-Ibarrangelu, Bizkaia, 2003) ez ezagutu taldekide aldaketarik sortu zenetik. Ikasketek, lanek, ahotsek gitarrek eta musikak bete dute euren eguneroko bizimodua, eta iraun dute nahiz eta gorabeherak eduki urteen joan etorrian. Gaztaroaren lehen ukituekin, "Itxosun zarrati" lehen diskoa diskoa 2005ean kaleratu zen. Kantu erakargarriak, musika alaiak, melodiaz betetako koru zirraragarriak bezain errazak abesteko, rock and rollaren arima arina, eta gustagarria edozein adinetan lehen entzunaldiarekin. 2007an, "Barikun" diskoa 2007an argitaratu zen. Musika jaiaren dinamika bezala pentsatuta, alaitasuna lau haizetara. The Uski's taldearen doinuek Euskal Herriko musika serioaren zutabeak bota nahi zituzten hantzez gora. Hasieratik, The Uski's taldearen abestiak maiz entzun dira irrati uhinetan. Hirugarrena, "Katuek bezala", 2007an argitaratuko da. The Uski's taldeak musikaren esparruan txokoa irabazita dauka. "Tximinotan" 2012koa da, dantza eta umorea ahaztu gabe. Eta horrela segituko du oraingoan ere.

The Uski's taldeak bosgarren diskoa "The Uski's" da. 2015eko maiatza eta ekainean Tio Pete estudioetan grabatu du Jose Lastrak eta ahotsak, perkusioak eta konponketak The Uski's taldearen estudioan egin dituzte taldekideek. Diseinuak eta argazkiak Iker Barberok egin ditu.

The Uski's taldearen "The Uski's" diskoa da, bosgarrena. Rock and roll abestiak dira funtsean baina rockaren estiloetako musika zertzelada anitzak aurkituko ditugu. Kantu bakoitzak soinu mundu berezia du eta muinean batasuna ageri da melodiak kantatzeko moduan eta koruetan. Horrek emango dio diskoari betiko The Uski's taldearen norabidea. The Uski's taldeak astindu nahi du euren jendeak pentsatu ohi duena, abesti surferoak eta hondartza zaleak, nahiz eta abesti baten izenburua "Hawaiian" eduki. Beraz, portaera horretatik badu abesteko forma, batez ere, baina gero garaje-rock, proto-punk, hard-rock, pop, New Orleansko doinu beltzak, soula, musika beltzaren arrastoak zirrikitu guztietan. The Uski's taldeak rockaren maitasuna dantza bilakatu ohi du, dohain bikainak dituelako melodiak gerriaren mugimendu bihurtzeko. Letretan taldearen aurpegiak gordinena ikusiko dugu, lastorik gabe doaz hitzak, harremanak, ustelkeria politikoa eta sentimendu, besteak beste.



ritxi aizpuru + the uski's (2015eko urriaren 20)

### ESKO BALTZA

Kantu iluna pertsona ilunei eskainia. Gure herrian guez besteen gauzak apurtu eta lapurtzen ibiltzen den "esko baltza"-rentzako idatzia. Zuk badakizu zuretzako dela!

### REGIJEK FRET

Garaje-rock eta proto-punk estilotik mugitzen da abestia erritmo ertain baten bidez, organo eta ahotzen laguntzarekin. Bakoitzak norberaren bizitza alferrik galtzen ez ote dagoen hausnartuko du.

### TRUMOTE

"Trumote botaten deuenin" momentu ederra etxeko leihoak ireki, basoko belar buztia usaina arnastu eta erdi tempoko abesti eder hau entzuteko. Melankolia puntutxo batekin abesti guztiak zuretzako idatziz.

### ZEURE ALBUN

Batzuetan gauza batzuk esatea kostatzen den arren, barneko sentimendu horiek abesti modura utz daitezke, hori da ahotsez beteriko balada honetan esan nahi dena.

### HAMENDIK EZ GARA PASA

Goizeko rock and roll potentzia, goizekoa gaba guztia juergan emon eta gero noski! Kantu honek ez dizu inoiz etxera joaten utziko. Soinu zikin eta potentzia oraindik indarra daukatengautxori guztientzat.

### ITZEN LET

Garaje rock estiloko abestia, gitarren soinu gordinak dominatzen duelarik, abesti arina eta gorputza mugitzera bultzatzen duena. Harreman bat bukatze dagoen sortzen diren burutapenei errepeaso bat ematen die abestiak.

### GOTZA HASTEN

Pop eta soul ukituak, dantza eta melodia ederrak, koru finak... Goiza hasten denean hori guztia eta gehiago elkarrekin pasatutako momentu onak gogoratuz.

### KOKODRILLO

Kokodrilo mordoak daukagu Euskal Herrian gu kontrolatzeko prest. Beti daude adi lekuri pentsa ezinenean gu harra-patzeko zain. Baina... denon artean, gogor abestuz gero, beldurtuta alde egingo dute. Soul dantzagarri apur batekin kokodrilo, jun etxera!

### UH LA LA LA

Aspaldi elkarrekin egon ginen eta gaur berriro sartu zara taberna ilun honetan, badakizu zer dagoen. Dantzarako beste abesti bat, 60ko hamarkadako erritmo beroekin hegan eramango zaituena.

### F.F.F.

Hard rock estilotik hurbilago AEBtako "hegoaldeko" riff-ekin beteta, kontzertu osteko gau sutsu baten istorioa da.

### MR. BAJOT

Denok ditugu bajoi itzelak. Bakoitzak badaki nondik datozen. Kasu honetan, Mr. Bajoiri bueltan gurea dena eskatzen diogu. Soul eta tekno ukituekin dator gure garrasia.

### HAWAITAN

Mandolinak gidatzen du balada hau. Bidaia astiro hasi arren, badu gorakada bat abesti erdian gero astiro-astiro berriro hiltzeko. Oso bidaia polita eskaintzen du abesti honek, behin Hawain ezagututako neska eder bat tartean dela.

- Iñigo Eiguren:** ahots nagusia  
**Anartz Laka:** gitarra, baxua, koruak, mandolina, gitarra akustikoa  
**Oier Laka:** gitarra, baxua, koruak, gitarra klasikoa, teklatuak  
**Jon Zameza:** gitarra, baxua, koruak  
**Iñaki Astoreka:** bateria, perkusioa



Telf. 618 072 076-26 / www.baga-biga.eus / info@baga-biga.eus  
 221 P.K. 48100 Mungia (Bizkaia)